

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 9koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariarena, Unibasqeko Aholku Batzordeak 2016ko martxoaren 8an onarturiko Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitate Gradu eta Master Titulu Ofizialen Jarraipenerako Protokoloa jakinarazten duena.

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO UNIBERTSITATE GRADU ETA MASTER TITULU OFIZIALEN JARRAIPENERAKO PROTOKOLOA

ERREFERENTZIA ESPARRUA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren, ikasketa ofizialak arautzen duena, 27. artikulua honako hau ezartzen du:

"1. Unibertsitate, ikastegi eta tituluaren erregistroan (RUCT) inskribatutako titulu ofizialei dagozkien irakaskuntzak ezartzen hasi ondoren, Unibertsitate Kontseiluak egiaztatutako ikasketa-planean bildutako proiektuaren betetzearen jarraipena egingo dute ANECA erakundeak edo autonomia-erkidegoetako Legeak finkatzen dituen ebaluazio-organismoek."

Gradu, master eta doktoregoko tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17.4 artikulua ezartzen duenez, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitate guztietan erregistratutako gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialen jarraipena egingo du Unibasq agentziak, egiaztatzea berritzeko ebaluazioa egin behar den unera arte.

Halaber, 1393/2007 Errege Dekretuaren 27. artikulua ezartzen du ANECA-k eta autonomia erkidegoei dagozkien ebaluazio-organismoek egingo dutela jarraipena, eta, Hezkuntza Ministerioarekin eta dagozkion autonomia-erkidegoekin batera elkarlanean, ikasketa-planen jarraipena egiteko prozeduraren gutxieneko irizpide eta oinarritzko adierazleak barnean hartuko dituen protokoloa landuko dutela.

2008. urtean, Unibertsitateen Kalitaterako Agentzien Espainiako Sareak (REACU) "*Titulu ofizialen jarraipenerako gomendioak*" dokumentua idatzi zuen, agentziek eta unibertsitateek tituluaren jarraipenerako arauan ezarritakoa beteko dela bermatzeko hartu beharreko erabakiak errazago hartzeko lan-tresna baliagarri bat izan zezaten.

CURSA Batzorde Teknikoak (Jarraipena eta Egiaztatzea Arautzeko Unibertsitate Batzordea) "*Unibertsitate-titulu ofizialen jarraipena egiteko eta akreditazioak berritzeko protokoloa*" landu zuen. Horren bidez, agentzia guztientzako dokumentu amankomun bat adostu nahi izan zen, hain zuzen ere unibertsitateek eskainitako informazio publikotik eta adierazle gutxi batzuetatik abiatuta titulu guztiek dituzten elementu kritiko gutxi batzuei buruzko gogoeta egiteko.

Aurreko ebaluazio prozesuekin eta egiaztapena berritzeko ebaluaziorekin izandako esperientziaren ondorioz, eta CURSA protokoloa, indarrean dagoen araudia eta ENQA-k (The European Association for Quality Assurance in Higher Education) garatutako Goi-mailako Hezkuntzako Europako Esparruan Kalitatea bermatzeko Irizpide eta ildoak oinarritzat hartuz, Agentziako Aholku Batzordeak, bere 2016ko martxoaren 8ko bileran, aurreko protokoloa ordezkatzen duen protokolo berria onartzea erabaki du, bere edukia hurrengo ataletan ezarritakoa izanik.

Protokolo honen zehar aipatzen diren laguntzeko dokumentuak (I. eranskina: "Titulazioaren informazio publikoa ebaluatzeko txantiloia", II. Eranskina: "Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate Titulu Ofizialen jarraipena ebaluatzeko txantiloia" eta III. eranskina: "Jarraipen txostena egiteko eredu") Unibasq-en web orrialdean eskuragarri daude (<http://www.unibasq.org>).

XEDEA ETA NORAINOKOA

Protokolo honek Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen-eremuan dauden unibertsitateetako gradu eta master titulazio ofizialen jarraipena egiteko irizpideak ezartzen ditu. ***Titulua unibertsitate-artekoa izanez gero, tituluaren egiaztapena eskatu duen Unibertsitatea kokatua dagoen autonomi erkidegoaren ebaluazio agentziak egingo du jarraipena.***

Gogorarazi beharra dago gogoetan oinarrituta egon behar duen eta kalitatea bermatzeko barne-sisteman aurreikusitako tresnak erabili behar dituen titulazioen jarraipen-prozesuaren lehen erantzulea unibertsitate bakoitza dela, eta Unibasq agentziak kanpoko ebaluazio-agente gisa diharduela, goi-mailako hezkuntzaren zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

Era berean, oso garrantzitsua da erakundeen autonomia eta, aldi berean, horrek dakartzan erantzukizunak aitortzea. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da kalitatea ziurtatzeko lehen erantzukizuna unibertsitateena dela, arestian adierazi dugunez.

Ez da egingo desagerpen prozesuan dauden tituluen jarraipenik.

HELBURUAK

Jarraipen-prozesuaren helburu nagusiak honako hauek dira: alde batetik, unibertsitateak aurkeztutako proiektuari jarraiki titulua behar bezala ezarri dela egiaztatzea, eta, bestetik, abian jartzean lortutako emaitza nagusiak aztertzea. Bestalde, hasieran egiaztatutako ikasketa planean egindako aldaketak, "Unibertsitateko tituluen aldaketa eskatzeko gidaliburua" dokumentuan zehaztutakoak, jasota geratzea.

Azterketa horren bidez, erakundeek tituluen egoerari buruzko gogoeta egitea eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako lan-filosofia bat ezartzea lortu nahi da.

Jarraipenaren helburuak honako hauek dira:

- a) Irakaskuntzak ezarritako tituluaren ikasketa-planean bildutakoaren arabera egikaritzen direla ziurtatzea, Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluen Erregistroan (RUCT) jasotakoari jarraiki, Unibertsitate Kontseiluak onartutako eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoek baimendutako aldaketekin batera.
- b) Unibertsitate Sistemako intereseko agenteei informazio egokiaren eta garrantzitsuaren erabilgarritasun publikoa ziurtatzea.
- c) Irakaskuntzen garapenean egon daitezkeen hutsuneak detektatzea eta hutsune horiek konpontzeko egindako ekintzak aztertzea.
- d) Ikasketa-plana ezartzen den bitartean hobetzeko gomendioak ematea eta/edo iradokizunak egitea.
- e) Unibertsitate-sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea.
- f) Agentziaren eta unibertsitateen artean irakaskuntzen etengabeko hobekuntza bultzatuko duen gogoeta sustatzea.
- g) Tituluen egiaztapen, baimentze eta egiaztapena berritzeko txostenetan jasotako gomendioen eta jarraipenean jasotako hobekuntza arloen eransketa berrikusi.
- h) Titulua egiaztatu ondoren Unibertsitateek memoriari gehitutako aldaketen berrikuspena egitea. Unibertsitateak jarraipen prozesua irauten duen bitartean aurkeztu ditzaken aldaketak Unibasq-eko web orrian agertzen den "Unibertsitateko Tituluen aldaketa eskatzeko gidaliburua" dokumentuan aurkitzen dira.
- i) Egiaztapena berritzeko prozesua arintzea, titulu ofizialen ebaluazio prozesuen lotura ziurtatuz.

AGENTZIAREN JARRAIPEN TXOSTENAREN IGORPENERAKO JARDUNBIDEA

Jarraipen jardunbideak zehaztutako xedeak lortzeko, tituluaren ebaluazioa zabaltzeko eta egiaztapena berritzearen prozesua errazteko egitaratutako jarduera multzo bat hartzen du bere baitan.

1. Autotxostenaren aurkezpena:

- a) Unibertsitateak urtero ezarritako titulu bakoitzaren jarraipen txostena prestatuko du. Txostenak honako atal hauek izango ditu:
 - Tituluaren web orriaren URL-a
 - 1.Taulan zehaztutako adierazleak, eta beharrezkoa denean, ezohiko egoeren edo desbideratzeen justifikazioa
 - Urteroko kudeaketa txostena edo KBBS-ren berrikuspena edo kudeaketa jasotzen duen txostena. Hobekuntza ekintzen plana.
 - Hala badagokio, "Unibertsitateko Tituluen aldaketa eskatzeko gidaliburua"n adierazitako eta burututako aldaketen azalpena jarraipen prozesuan jakinaraziak izateko. Aldaketa bakoitza zertan datza zehaztu eta antzeman eta bere egokitzapena baloratu ahal izateko bakoitzaren justifikazioa egin. Aurreko jarraipen prozesuetan tratatutako eta ebatzitako aldaketak ez dira berriro sartu behar.

1. Taula.- ADIERAZLEAK
Eskainitako plaza kopurua
Lehen aukerako aurreko izen-ematez onarpen berriko matrikula kopurua
Onarpen berriko matrikula kopurua lehenengo ikasturtean (gazt.)
Onarpen berriko matrikula kopurua lehenengo ikasturtean (eusk.)
Sartzeko bidea. Graduaren kasuan: Unibertsitateko Sartzeko Probak (PAU) LH 25 URTE GORAKOAK BESTE BATZUK
Sartzeko bidea. Masterren kasuan: Espainiako unibertsitate titulua GHEE-eko unibertsitate titulua. 2 edo 3. zikloko ikasketetara sartzeko bidea ematen duen GHEE-ekoa ez den unibertsitate titulua
Sartzeko gutxienezko nota, graduaren kasuan
Atzerriko jatorria duten matrikulatutako pertsona kopurua
Titulazioaren betetze maila
Titulazioaren lehentasun maila
Bekadun ikasle kopurua (emakumezkoak)
Bekadun ikasle kopurua (gizonezkoak)
Irakasle eta Ikertzaileak (emakumezkoak)
Irakasle eta Ikertzaileak (gizonezkoak)
Irakasle eta Ikertzaile doktoreak (emakumezkoak)
Irakasle eta Ikertzaile doktoreak (gizonezkoak)
Irakasle lantaldearen egonkortasuna
Unibertsitateko irakasle lantaldearen seiurteko kopurua
Unibertsitateko irakasle lantaldearen bosturteko kopurua
Irakaskuntza egiaztapena duen irakasle kopurua
Ikasle/Irakasle ratioa
Errendimendu tasa
Uzte tasa
Ikasketen uzte tasa
Graduatze tasa
Arrakasta tasa
Ebaluazio tasa
Eraginkortasun tasa
Bidalitako ikasleen mugikortasuna (SICUE-SENECA, ERASMUS, BESTE PROGRAMA BATZUK)
Jasotako ikasleen mugikortasuna (SICUE-SENECA, ERASMUS, BESTE PROGRAMA BATZUK)
Ikasleen gogobetetze maila
Egresatutako pertsonen gogobetetze maila
Enplegu tasa (emakumezkoak)
Enplegu tasa (gizonezkoak)
Langabezia tasa (emakumezkoak)
Langabezia tasa (gizonezkoak)
Ahokatutako enpleguaren % (emakumezkoak)
Ahokatutako enpleguaren % (gizonezkoak)

b) Unibertsitateak jarraipen txostena Unibasq-era bidaliko du agentziak eskura jarritako aplikazio informatikoaren bidez.

2- Auto txostenaren ebaluazioa:

a) Unibasq-ek urtero, ondorengo irizpideak jarraituz, jasotako txosten guztien artean zenbait txosten aukeratu ditu ebaluatuak izateko:

- Aurretik jarraipen edo egiaztapen berritzearen txostenetan akatsak izan dituzten tituluaren jarraipen txostenei lehentasuna emango zaie,
- Bere ezarpenaren 3. urtean aurkitzen diren graduen jarraipen txostenak eta bere ezarpenaren 2. urtean dauden unibertsitateko masterren jarraipen txostenak egin ahal izango dira,
- Unibertsitatearen erabakiz arreta berezia behar duen tituluaren txostenak egin ahal izango dira, eta aldeztatik ebaluatuak izan ez diren kopuru aldakor bat.

b) Aukeratuak izan ez diren txostenak, tituluaren espedientearen zati izatera pasatuko dira eta tituluaren egiaztapena berritzeko prozesuan kontuan hartuko dira.

c) Erabilgarri dagoen informazio publikoaren ebaluaziorako, Agentziak unibertsitateko edo unibertsitate aurreko ikasleen laguntza eskatuko du, informazio horren nahikotasuna frogatzeko asmoz. Ebaluazio eginkizuna errazteko asmoz, Unibasq-ek ikasleen eskura "Titulazioaren informazio publikoa ebaluatzeko txantiloia" jarriko du (I. eranskina).

d) Tituluak ebaluatzeko Batzordeek txostenen ebaluazioak egingo dituzte. Batzordeen osaera eta funtzionamendua agentziaren web orrian eskuragarri daude. Espediente bakoitzaren ebaluazioa errazteko asmoz Unibasq-ek ebaluatzaile bakoitzaren eskura ebaluazio txantiloia jarriko du (II. eranskina).

e) AUDIT Batzordeak Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari buruzko informazioa ebaluatuko du bere programan jarraipenerako ezarritakoaren arabera. Agentziak igorritako jarraipen txostenari AUDIT-en jarraipen txostena atxikiko zaio.

3. TXOSTENA IGORTZEA:

a) Ebaluazioa egin ondoren, txosten bakarra egingo da ebaluatu beharreko titulazio bakoitzerako (III. Eranskina. Jarraipen-txostenaren eredia), eta txosten hori dagokion unibertsitateari igorriko da. Tituluaren jarraipen txostenak tituluaren garapen egokirako proposamenak izango ditu eta egiaztapena berritzeko fasean tituluak aldeko informe baten proposamena lortzeko nahitaez ezarri beharreko beste ekintza batzuk.

b) Jarraipenaren ebaluazio prozesuan tituluaren ezarpenaren bilakaera egokirako, eskatzen den gutxienezko kalitatea arrisku larrian jar ditzaketen akatsak antzematen badira, unibertsitateari,



Autonomia Erkidegoari eta Unibertsitate Kontseiluari jakinaraziko dio Unibasq-ek, indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraiki jardun dadin.

c) Behin txostena jaso eta gero Unibertsitateak 10 egun naturaleko epean jarraipen txostenetan aurkitutako akats materialen berri emango dio Unibasq-i, Agentziak hala balegokio, zuzenketak burutuz.

d) Unibasq-ek, agentziaren web orrian, igorritako jarraipen txostenak argitaratuko ditu.

EGUTEGIA.

Jarraipen txostenen aurkezpen data Unibasq eta unibertsitateen ordezkarien artean adostuko dira.

TITULU OFIZIALEN JARRAIPENERAKO IRIZPIDE ETA ERREFERENTEAK.

Protokolo honen abiapuntua berifikazioa, egiaztapena, jarraipena eta egiaztapena berritzeko prozesuak barne koherentzia izan behar duen prozesu bakar bateko atalak direla da. Hau oinarritzat hartuz, Titulu Ofizialen jarraipenaren prozesua egiaztapena berritzeko prozesuan ezarritako irizpide batzuetan oinarritzen da.

Proposatutako ebaluazio eredu egiaztapena berritzeko prozesuan balorazioa egiteko kontuan hartzen diren aspektu aipagarrietan oinarritzen da. Proposatutako ebaluazio 5 irizpidetan oinarritzen da. Hauek egiaztapena berritzeko prozesuan aspektu aipagarrienak baloratzeko erabiltzen diren 7 irizpideetatik ateratakoak dira : antolamendua eta garapena, informazioa eta gardentasuna, kalitatearen barne bermeko sistema, langile akademikoak; gogobetetze eta errendimendu adierazleak. Egiaztapena berritzeko prozesuan ezarritako beste bi irizpideak (laguntza langileak, baliabide materialak eta zerbitzuak eta ikaskuntza emaitzak) bakarrik hartuko dira kontuan Unibertsitateak Unibasq-i jarraipen prozesuan aldaketak izan dituztela jakinarazten badio. Aldaketarik ez balego, egiaztapena berritzeko prozesuan ebaluatuko lirateke.

Lehen esan bezala, jarraipenaren helburuetako bat Unibertsitateak tituluaren egiaztapena eta gero memorian egin dituen aldaketak berrikustea da. Unibertsitateak jarraipen prozesuan aurkeztu ditzaken aldaketak Unibasq-eko web orrian eskegita dagoen "Unibertsitate tituluaren aldaketak eskatzeko gidaliburua"n aurkitzen dira. Aurkeztutako aldaketak ebaluazio berri bat behar izanez gero, ebaluazio prozesua "Titulu ofizialen egiaztapen-baimentze ebaluaziorako laguntza gida" jarraituz burutuko da.

Jarraian, Unibasq-ek titulazio bakoitzeko jarraipen txostena burutzeko orduan kontuan izango dituen irizpide eta jarraibideak zehazten dira. Irizpide eta jarraibide hauek, oro har, gradu eta master Titulu Ofizial guztietan aplikatuko dira. Azkenik, burutapenak sostengatzen duten adierazle eta ebidentzia eta analisia oinarritzen duten aspektuak adierazten dira.

1. IRIZPIDEA. ANTOLAMENDUA ETA GARAPENA

1.1 Ikasketa planaren ezarpena eta programaren antolamendua tituluaren egiaztapen memorian edota geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekiko koherenteak izatea.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Aldaketak aurkeztuko ez balira, jarraibide hauek ez lirateke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

1.2 Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

Jarraibide hau ez da ebaluatuko jarraipen prozesuan.

1.3 Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak (irakasgai ezberdinen artean artikulazio horizontal eta bertikala) biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitzak lortzea ziurtatuz.

Jarraibide hau ez da ebaluatuko jarraipen prozesuan.

1.4 Aplikatutako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarbide-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta haiek aplikatzearekin egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

- Kontuan hartuko da tituluan matrikulatutako ikasle kopuruak ez gainditzea egiaztapen-memorian eta/edo aldeko txostena jaso duten memoriaren ondorengo aldaketetan onartutako ikasle kopurua.
- Egokitzapen-ikastaro bat ematen duten gradu-tituluen kasuan, kontuan hartuko da tituluan matrikulatutako ikasle kopurua, egiaztapen-memorian eta/edo aldeko txostena jaso duten memoriaren ondorengo aldaketetan onartutako ikasle kopuruarekin alderatuz.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Titulazioaren orri instituzionala.
- Adierazleen eta tituluen datuen bilakaera
- Egiaztapen txostenaren azkenengo bertsioa eguneratuta

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duen egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke.

1.5 Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetzea ahalbidetuz

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirake ebaluatuko jarraipen prozesuan.

2. IRIZPIDEA. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

2.1 Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute, baita jarraipen-eta egiaztapen- prozesuei buruzkoa ere.

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Ikasketa-planari buruzko informazio garrantzitsua, bereziki tituluaren ebaluaketarekin, garapenarekin eta emaitzekin zerkusia duena, eskuragarri egotea balioetsiko da, tituluaren arduradunek gardentasunaren eta kontuak ematearen arloan duten egitekoan lagunduko duen elementu gisa
- Tituluaren egiaztapen-memoria argitaratzea baita memoriari dagozkion eguneratzeak ere (aldeko txostena jasotakoak).
- Egiaztapenerako azken ebaluazio-txostena eta ikasketen planen aldaketen gainontzeko txostenak
- Barneko eta kanpoko jarraipen-txostenak.
- Unibertsitate Kontseiluaren egiaztapen-ebazpena.
- Ikasketa-planaren Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluaren Erregistrarako esteka.
- Tituluaren Kalitatearen Bermerako Sistemarako (tituluaren arduradunak, prozedurak eta abian jarritako hobekuntza-ekintzak biltzen dituen esteka.
- Tituluaren emaitza garrantzitsuenei buruzko informazioa (errendimenduaren adierazleak, hainbat kolektiboren gogobetetzea, laneratzea).

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren web-orria
- Tituluaren jarraipen-txostenak

2.2 Tituluaren interesa izan dezaketen ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interés-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

Ikasketa-planean interesatuta dauden kolektiboentzat (etorkizuneko ikasleak, enplegatzaileak, hezkuntza-administrazioak eta abar) erabilgarri dagoen informazioaren irisgarritasuna eta egokitasuna balioetsiko da; besteak beste, honako informazio hau:

- Titulurako sarbidea eta gomendatutako sarrera-profila.
- Ikasketa-planaren egitura moduluak, gaiak eta irakasgaiak bilduz, kreditu-banaketa, titulua emateko modalitateak, ezarpen-egutegia eta, hala badagokio, gradu-aipamenak edo master espezialitateak, haien prestakuntza-ibilbideak deskribatuz.
- Egresatuaren egreso-profila, lanbidea garatu ahal izateko eremuak eta tituluak eskaintzen dituen sarbide akademikoak.
- Ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak.
- Tituluak araututako lanbide baterako sarbidea ematen badu edo lanbide arautu batera daramaten ikasketetarako sarbidea ematen badu, alderdi hori ikasketak arautzen dituen agindurako esteka baten bidez argi zehaztu behar da, eta aldez aurretik, "lanbide arautua" gauzatzera daraman titulua izateak zer esan nahi duen azaldu behar da.

- Tituluari gaitasun profesionalik ez badagokio, argitaratutako informazioak ez du alderdi horri buruzko nahasmenik eragin behar.
- Tituluak gradura egokitzeko ikastaro bat biltzen badu, argi deskribatu beharko da, ikastaroari dagozkion alderdi guztiak jasoz. Ikastaroa egiaztapen-memorian edo memoria aldatuan ezarritakoari egokitu behar zaio.
- Hala badagokio, onarpen-frogen ezaugarriak (irizpideak eta arduradunak).

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren web-orria.
- Tituluaren jarraipen-txostena.

2.3 Tituluan matrikulatutako ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

Ikasleak matrikulatu ondoren beren ikaskuntzarako garrantzitsua den ondoko informazioarekiko duten erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta egokitzapena balioetsiko da:

- Ikasleek irakasgaien ordutegiei, gelei eta azterketa-egutegiari buruzko informazioa eskura izan behar dute baita ikasketa-planaren banaketaren jarraipen on bat egiteko behar den informazioa ere.
- Tituluaren hezkuntza-gidek ikaslearentzat erabilgarri egon behar dute irakasgai guztietan (kanpopraktikak eta gradu-amaierako edo master-amaierako lanak barne) matrikulatu aurretik.
- Hezkuntza-giden edukia: irakasgai bakoitzaren deskribapena (gaitasunak, bibliografia, gaizerrenda eta abar), hezkuntza-jarduerak eta ebaluazio-sistemak. Ikasleak material espezifikoak (programa informatikoak, esaterako) edo alde aurreko jakintzak erabiltzea eskatzen badu irakasgaiak, material horien behar bezalako deskribapena egin beharko da.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren web-orria edo intranet.
- Tituluaren jarraipen-txostena.

3. IRIZPIDEA. KALITATEAREN BARNE BERMEKO SISTEMA (KBBS)

Agentziak igorritako jarraipen txostenari AUDIT-en jarraipen txostena atxikituko zaio.

4. IRIZPIDEA. LANGILE AKADEMIKOAK.

4.1. Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza eta ikerketa-kalitate egokia ere.

Jarraibidea betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Langile akademikoen lanbide-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-esperientzia titulurako definitutako maila akademikoarekin, izaerarekin eta gaitasunekin bat dator.
- Langile akademikoek irakaskuntza erdi-presentzian edo urruneko irakaskuntzan esperientzia izatea.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera
- Tituluko gai/irakasgaietan inplikaturako irakasle bakoitzaren curriculum laburra (Tituluaren web orria)

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke.

4.2 Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute**Jarraibidea betetzeko balioetsi beharreko alderdiak**

- Irakasle iraunkorrak/irakasle ez iraunkorrak ehunekoak. Langile akademikoak tituluari ondo egokitzea.
- Ikasle/irakasle harremana eta harreman horrek irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan duen eragina.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera
- Tituluko gai/irakasgaietan inplikaturako irakasle bakoitzaren curriculum laburra (Tituluaren web orria)

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke.

4.3 Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Jarraibide hau ez da ebaluatuko jarraipen prozesuan.

4.4 Hala badagokio, unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen eta jarraipen txostenetan zehaztutako gomendioak (irakasleen kontratazioari eta haien irakaskuntza- eta ikerkuntza-kualifikazioa hobetzeari dagozkienak) gauzatu ditu.

Jarraibide hau soilik unibertsitateak, egiaztapen memoria eta egiaztapen, baimentze eta jarraipen txostenetan jasota dauden irakasle eta ikertzaile prestakuntza hobekuntzarekin eta kontratazioarekin zerikusia duten konpromisoak hartzen baditu ebaluatuko da.

Jarraibidea betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Kontuan hartutako aldian langile akademikoei dagokien egituraren egindako aldaketak.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera
- Tituluko gai/irakasgaietan inplikaturako irakasle bakoitzaren curriculum laburra (Tituluaren web orria)
- Tituluaren egiaztapen-, jarraipen- eta baimen-txostenak
- Langile akademikoen sarrerari dagokion plana.

5. IRIZPIDEAK. LAGUNTZA LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK.

5.1 Prestakuntza-jardueretan parteh hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirarteke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

5.2 Baliabide materialak (gelak eta haien ekipamendua, lan egiteko eta ikasteko guneak, laborategiak, tailerrak, esperimentaziorako guneak, liburutegiak eta abar) ikasle kopuruari eta tituluaren programaturako prestakuntza—arduerei egokituta daude.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirarteke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

5.3 Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzian ematen diren tituluaren kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira tituluari dagozkion prestakuntza-jarduerak garatzeko eta gaitasunak eskuratzeko.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirarteke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

5.4. Matrikulaturako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirarteke ebaluatuko jarraipen prozesuan

5.5 Tituluak kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirateke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

5.6 Hala badagokio, Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen-, eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak (prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileei, baliabide materialei eta tituluaren biltzen diren laguntza-zerbitzuei dagozkienak) gauzatu ditu.

Jarraibide hau soilik ebaluatuko da unibertsitateak formakuntza jarduerekin, errekurtsio materialekin eta laguntza zerbitzuekin zerikusia duten konpromisoak hartu baditu, hauek egiaztapen memoria eta egiaztapen-baimentze eta jarraipen txosteneko behin-betiko gomendioetan jasotzen badira

Jarraibidea betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Baliabide materialen eta zerbitzuen tipologian eta kopuruan izandako aldaketak.
- Laguntza-langileei dagokien egituraren izandako aldaketak.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Laguntza-langileen laneratze-plana
- Baliabideen hornikuntza-plana

6. IRIZPIDEA. IKASKUNTZA EMAITZAK.

6.1 Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitez lortzeko helburuari zentzuzko moduan egokituta daude.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirateke ebaluatuko jarraipen prozesuan.

6.2 Lortutako ikaskuntza-emaitez prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goik-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke. Ez balira aldaketak aurkeztuko, jarraibide hauek ez lirateke ebaluatuko jarraipen prozesuan

7. IRIZPIDEA. GOGOBESETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

7.1 Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera (ikasturte bakoitzeko ikasle hasi berrien kopurua, graduazio-tasa, uzte-tasa, efizientzia-tasa, errendimendu-tasa eta arrakasta-tasa) egokia da, hain zuzen ere titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin koherentea.

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Tasek izandako bilakaerak tituluaren gai-eremuaren arabera duen egokitzapena eta memoria egiaztatuko aurreikuspenekiko duen koherentzia.
- Unibertsitateak emandako errendimendu-adierazleen eta emaitzen fidagarritasuna baita emandako adierazle desberdinen arteko loturaren koherentzia ere.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera
- Jarraipen txostenak

Unibertsitateak jarraibide honekin zerikusia duten egiaztatuko ikasketa planean aldaketak aurkeztuz gero, Unibasq-ek aztertu eta hala balegoke, aldaketa hauek ebaluatuko lituzke

7.2 Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interés-taldeen gogobetetze-maila egokia da.

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Irakasle eta egresatuen gogobetetze-maila

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera

7.3 Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru zientifikorako, sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira

Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

- Unibertsitateak laneratzea bideratzeko duen jardun-plan instituzionalak laneratze-adierazle fidagarriak lortzea ahalbidetzen du
- Laneratze-adierazleen balioak tituluaren ezaugarrien arabera egokitzea

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren datuen eta adierazleen bilakaera

Ebazpen honek 2012ko abenduaren 26koa indargabetzen du.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 9an

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping, stylized lines.

Eva Ferreira Garcia
Unibasqeko zuzendaria

